

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Migrazio klimatikoak

**Nazioarteko babesak, hondamen
klimatikotik ihes egiten duten
pertsonek**

20.

***Migrazio klimatikoak
Nazioarteko babesa, hondamen klimatikotik
ihes egiten duten pertsonentzat***

Miguel–Pajares Martín

Gaur egun, hitz egin al dezakegu migrazio klimatikoari buruz?

Bai, errealitate dira jada. Herrialde guztietan ez dugu modu berean antzematen, baina **klima-aldaketa kalte handiak eragiten ari da munduko zenbait eskualdetan, eta jende asko atera du bere etxeetatik.** Milioika pertsona azken hamarkadetan desagertu (edo ia desagertu) diren habitaketan bizi ziren. Gehiegi idortu direla-eta jada ezer landatu ezin den laborantza-lurretan; dagoeneko ganaduarentzako bazkarik ez den larreetan; mendi-hegal alubialetan, garaiz kanpoko eurite biziak, laboreak ureztatu beharrean, horiek suntsitu dituztenetan; itsas maila igotzearen ondorioz gazitu diren deltetan; desagertutako itsasbazterretan... Leku horietan guztietan bizi zen jendeak dagoeneko alde egin du, ezin baitzuten bertan gehiago bizi. Gehienak beren herrialdeko hiri-aldirietera joan dira bizitzera, eta beste batzuk herrialdeetik atera dira; emigratu egin dute.

Non antzematen da gehien fenomenoa, edo non da agerikoena?

Planetako zenbait eskualdetan, dagoeneko errealitate da migrazio-mota hau. Bi adibide argi ditugu: Sahel eta Afrikako Adarra. Baina fenomeno hori gertatzen da, halaber, Hegoaldeko Asian, Hego-ekialdeko Asian, Ozeano Bareko uhar-te-estatuetan, Erdialdeko Amerikan, Hego Amerikako zenbait eskualdetan, eta abarretan. Esaterako, Sahel Saharako basamortuaren eta Gineako golkoko nahiz Erdialdeko Afrikako oihan eta sabanen artean dagoen zerrenda emankorra da. Han, nekazaritza eta abeltzaintza oso garrantzitsuak izan dira beti, eta bai artzai- nek bai nekazariak muturreko klima-gertakariei aurre egin ahal izan diete, hala nola lehortei eta uholde-euriei. Gertakari horiek jasaten zituzten, baina, behin pasatuta, normaltasunera itzul zitezkeen. Lehen, hamar urtean behin gertatzen ziren lehorte gogor horiek, baina bost urtean behin gertatzen hasi ziren, eta, gero, hiru urtean behin...; gainera, geroz eta gogorragoak eta luzeagoak ziren. Horrez gain, lehen hezegune zabalak elikatzen zituzten euriteak uholde-euri bihurtuz joan dira, eta, horrenbestez, lurra ureztatu beharrean, lurzorua hautsi eta zurtoin berdeak eramaten dituzte. Orain, Sahelgo eurite ia guztiak (% 90) erauntsiak dira. Ur gehiago erortzen da Sahelgo zenbait lekutan, baina, hala eta guztiz ere, basamortutzea handiagoa da eskualde osoan. Saharako basamortuak metro bat aurreratzen du egunero bere hegoaldeko lerro osoan. Eta oraindik basamortu bihurtu ez diren laborantza-lurretan produktibitatea jaisten ari da, tenperaturak gehiegizkoak direlako zerealentzat eta euriteak usteka-bekoak direlako.

Sortu al da gatazka-motarik?

Iparraldea basamortu bihurtuz joan den heinean, artzainek, pixkanaka, hegoalderantz eraman dituzte lehen Sahelgo hezegune aberatsetan bazkatzen zituzten artaldeak, eta horrek gatazkak sortu ditu nekazariekin, beren lurrak gutxitzen ari direla eta produktibitatea galduz doazela ikusten baitute hauek ere. Erabilgarri dauden lurrak ere murriztuz joan dira. Murrizte hori, hain zuzen, **gubernuek lur-hedadura handiak agronegozioaren multinazionaleri utzi zizkietenean hasi zen, baina orain areagotu egin da, klima-aldaketa dela-eta. Horrenbestez, geroz eta gatazka handiagoak daude artzainen eta nekazarien artean, eta zenbait gerra-gatazka bihurtu dira**, edota gerra-gatazkak eragin dituzte.

Malin geroz eta jarraituagoak eta gogorragoak izan dira lehorteak, baina 2012koa bereziki gogorra izan zen. Lehorte horren ondorioz, herrialdearen erdiko hezeguneen degradazioa areagotu egin zen, hamarka mila abelburu desegin ziren, eta artzainen bizi-baliabideak suntsitu ziren; horrek guztiak tuaregen matxinada sustatu zuen (artzainez osatua, batez ere), eta egun oraindik indarrean den gatazka sortu. Txad aintziraren arroan ere galdu da hezeguneen zatirik handiena, eta galdu egin da aintziraren beraren azaleraren % 95; hori izan da, hain zuzen, Txad aintziraren ondoan, Nigeriaren ipar-ekialdeko gerra-gatazka eragin duen arrazio nagusietako bat. Euri gutxiko urteen ondorioz, larreen kontura hedatu ziren laborantza-lurak eremu horretan, eta, aldi berean, artzainek hegoalderantz jo behar izan zuten, iparraldea lehortzen ari zelako. Horren ondorioz, liskarrak sortu ziren, eta familia askok dena galdu zuten; hori dela-eta, gazte askok *Boko Haram* taldearen milizietan sartzea erabaki zuten.

Gertaera eta ekintza horiek kateatu egiten dira, eragile moduan edo zeharkako ondorio moduan?

Noski, ezin da esan Boko Haramen gatazka klima-aldaketak eragin duenik, baina gatazka horren eragileetako bat izan da, eta, batez ere, gatazka hori elikatu egin du. **Maliko eta Nigeriako gatazken ondorioz, hiru milioitik gora barne-desplazatu izan dira, eta milioi erditik gora errefuxiatu.** Errefuxiatu horien multzorik handiena (% 80 baino gehiago) inguruko herrialdeetan hartu dute.

Zer kopururi buruz ari gara?

Nazio Batuen Populazioaren Dibisioak 2019rako emandako datuen arabera, Mendebaldeko Afrikan gertatu den migrazio klimatikoaren hurbilpen bat egiteko, klima-aldaketarekin oso lotuta dauden gatazkek eragindako milioi erdi errefuxiatu horiek har ditzakegu kontuan, baina, seguruenik, askoz ere gehiago izango dira. Saheldar herrialde nagusietako (Burkina Faso, Niger eta Mali) emigrazioa 3,2 milioi pertsonakoa izan da, eta horien ia erdiek azken hiru hamarkadetan emigratu dute, klimaren eraginak handiagoak izan diren aldian. Emigrazio horren oso zati txikia iritsi da Europara. Zehazki, Burkina Fasoko emigratzaileen % 2, Maliko emigratzaileen % 10 eta Nigerko emigratzaileen % 3 soilik joan da Europara. Migratzaile horien helmuga nagusiak Mendebaldeko Afrikako kostaldeak dira, hala nola Lagos (Nigeria), Abidjan (Boli Kosta), Dakar (Senegal), Akkra (Ghana) eta Konakry (Ginea). Beste hiri batzuk oso bizkor hazten ari dira, bai Saheldik iristen diren migratzaileengatik bai herrialde barruko desplazatuengatik; azken horiek ere Saheldik gertuen dauden iparraldeko eremuetan gertatzen diren klima-aldaketek bultzatuta emigratu dute. Horrenbestez, **Mendebaldeko Afrikako migrazio klimatikoak munta handikoak direla esan daiteke, eskualdetik apenas irten diren arren.**

Beraz, Afrika kontinentearen tamaina kontuan hartuta, barrutira mugatutako migrazioak lirateke Afrika barruko migrazioak baino? Eta zer esan daiteke Afrikako Adarrean buruz?

Sahelen, lehorreak geroz eta gogorragoak eta sarriagoak izan dira; bada, Afrikako Adarrean egoera larriagoa da oraindik. **1972 eta 2010 artean, eskualde horretan sekula izan diren 20 lehorre handienetatik 16 izan ziren**, baina oke-rrena azken hamarkadan gertatu da. Lehorre handi bat izan zen 2010. eta 2011. urteetan, beste lehorre gogor bat 2013. eta 2014. urteetan, eta beste bat, are gogorragoa, 2015. urtean. 2016an eta 2017an, lehorrearekin jarraitu zen eskualde osoan (paraleloki, uholde-euriak nabarmendu ziren Sudanen eta gainerako herrialdeetako zenbait zonatan), eta ur- eta bazka-defizitaren ondorioz, gauduaren heriotza-tasa handiak izan ziren: artaldeak % 40 eta % 60 artean gutxitu ziren Somalian. 2018an ere euri gutxi egin zuen, eta ustekabekoak eta garaiz kanpokoak izan ziren, gainera; 2019. urtean, berriz, **FAOk** salbuespenezko lehortetzat jo zuena gertatu zen. Beraz, **azken hamar urte hauetan, Afrikako Adarrean etengabeko lehorrea izan dela esan daiteke.**

Eskualde horretako gatazkek ere zerikusi handia dute klima-eraginekin. Honelako azterketa-motetan, Darfurreko egoera jartzen da adibidetzat (Sudan mendebaldeko eskualdea). Eskualde horretan ere basamortua hedatuz joan da, eta, azken hamarkadetan, bere muga 50 eta 200 km artean mugitu da hegoalderantz, eremuaren arabera. Iparraldean zeuden lurretan aritzen ziren artzainak nekazariak okupatutako lurretara jaitsiz joan dira, eta tentsioa handitu egin da. 2003an, gatazka hori gerra zibil bihurtu zen. Artzainek *yanyauid* miliziak eratu zituzten, Khartumeko gobernuak eta, bereziki, Omar al Bashir presidenteak (jada kargutik kenduta dagoenak) lagunduta, eta nekazarien eta haien erakunde matxinoen aurkako borroka genozida bati ekin zioten; gatazka bereziki odoltsua izan zen, eta, horren ondorioz, **Nazioarteko Zigor Auzitegiak** gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak egotzi zizkion Omar al Bashirri.

Gizateriaren aurkako krimenak egotzi izana, ordea, ez zen oztopo izan Europar Batasunak harekin itun bat egiteko, Sudanek Eritreako eta Somaliako migra-tzaileei eta errefuxiatuei Europarako bidean pasatzen utz ez ziezaien. **Enough** Ipar Amerikako **GKEaren azterketa baten arabera, EBk atxikipen-eremuak finantzatu ditu, bai eta Omar al Bashirren segurtasun-indarrentzako eki-pamendua eta prestakuntza ere, migrazio-fluxu hori eten zezaten;** baina diru horren zati bat *yanyauid* milizia genoziden eskuetara iritsi da, presidenteak **«Laguntza Bizkorreko Indar»** gisa berregituratuta. Omar al Bashirrek dimititu egin behar izan zuen 2019ko apirilean, eta, azkenean, **Nazioarteko Zigor Auzi-tegiak** epaitu egingo duela dirudi.

Artzainen eta nekazarien arteko gatazkak ugaritu egin dira, halaber, Etiopian. Iparraldeko eta ekialdeko lehortek, uholde-euriak eta goi-lur emankorrenetako uholdeak direla-eta, Etiopia oso herrialde zigortua da. Somalian ere gatazkak piztu dira orain gutxi izan diren etengabeko lehorreen ondorioz. Herrialde horrek gatazka-historia luzea du, klima-aldaketarekin inolako zerikusirik ez duena edo oso zerikusi gutxi duena; baina, azken hamarkadetan, lehorreek geroz eta eragin handiagoa izan dute gatazketan. Kenyan ez dituzte iparraldeko herrietan diren gerrak, baina badira gatazkak, iparraldeko eremuan, bereziki; izan ere, Etiopian eta Somalian gertatzen ari den prozesu klimatikoaren oso antzeko egoera bizi dute eremu horretan: ganadu asko hil da, eta uzta handiak galdu dituzte. Ugariak dira artzain-komunitateen arteko istiluak, edota artzainen eta neka-zarien artekoak, eta ohikoa da beste herrialde batzuetako artzainak (Hego Sudangoak, Etiopiakoak...) Kenyako lurretan sartzea, beren herrialdeetan aurkitzen ez dituzten larreen bila; eta noski, horrek gatazkak sortzen ditu bertako biztanleriarekin.

Klima-aldaketa zeharkako kausa moduan?

Gatazka horiek guztiek beste kausa batzuk izan dituzte, ezin zaizkio klima-aldaketari soilik egotzi, baina klima-aldaketak bultzatu egin ditu azken hamarkadetan, eta geroz eta gehiago, gainera. **ACNUR**ek Ugandako eta Kenyako kanpalekuetan dauden errefuxiatu sudandarrei eta somaliarrei egindako elkarrizketetan oinarritutako azterketa baten arabera, **elkarrizketatu askok azken 15 urteetako klima-inpaktuek nekazaritzan eta abeltzaintzan eragindako etengabeko narriadurarekin lotzen zituzten indarkeria eta herrialdetik ihes egiteko erabakia.**

Etiopian, ez dira errefuxiatu asko izan gatazken ondorioz, eta, hain zuzen, emigrazioa-joera txikia da (biztanleriaren % 0,8); baina, ostera, barne-desplazamendu ugari izan dira. 2018an, barne-desplazamendu gehien izan ziren munduko herrialdea izan zen: 2,9 milioi **barne-desplazamendu**. Beraz, klima-aldaketak mugikortasun horretan duen eragin proportzionala zeinahi dela ere, Etiopian **barne-desplazatu gehiago** sortzen ditu **emigratzaileak baino**.

Sudango eta Somaliako egoera bestelakoa da. Sudanetik, bi milioi pertsonak emigratu dute, eta Somaliatik, beste bi milioi pertsonak, eta dagoeneko ikusi dugu zer garrantzi izan duten klima-eraginek migrazio horietan. Baina, hain zuzen, bi herrialde horietako emigrazioak dira gertukoena. Sudango emigratzaileen herrialde hartzaile nagusia Hego Sudan da, eta Somaliako emigratzaileen herrialde hartzaile nagusiak Etiopia eta Kenya dira. Beraz, Sahelen hautemandako parametro bera dugu; hau da, **klima-osagai handiena duten migrazioak ez dira ia-ia eskualdetik ateratzen.**

Beraz, barne-desplazatu gehiago migra- tzaileak baino?

Badakigu gerrek, indarkeriak eta politika-, erlijio- edota etnia-arrazoiengati-ko jazarpenek eragindako gatazkek barne-desplazamendu gehiago eragiten dituztela migrazioak baino, eta horiek, batez ere, distantzia txikikoak direla. Jendeak arriskuan dagoela-eta ihes egiten duenean, etxetik gertu geratu ohi da. Ez ahaztu munduan dauden errefuxiatuen % 84 Hegoalde Globaleko herrialdeek hartu dituztela. Ehuneko hori handiagoa da herrialdetik ateratzen ez direnak kontuan hartzen baditugu: **gatazkek eta indarkeriak 30 bat milioi errefuxiatu eta 40 milioitik gora barne-desplazatu eragin dituzte**. Beraz, bi multzo horiek zenbatuta, arrazoi horiek direla-eta ihes egiten duten pertsonen % 94 beren etxetik ahalik gertuen geratzen da, eta % 6k soilik egiten du migrazio luze bat.

Erraza al da mugimendu horiek zenbatzea?

Klima-aldaketak eragindako giza mugikortasunak parametro berei jarraitzen dien jakin nahi genuke, baina, tamalez, **ez ditugu klima-aldaketak eragindako barne-desplazatuei eta migratzaileei buruzko antzeko datuak**. Gatazketatik ihes egindako desplazatuei eta errefuxiatuei dagokienez, badakigu zenbat izaten diren urte bakoitzean, eta baita zenbat doazen metatuz; hau da, badakigu zenbat desplazatu eta errefuxiatu dauden une bakoitzean (2019an 70 milioi izan ziren, aurrez adierazitakoak). Ostera, klima- edo ingurumen-hondamendiek eragindako desplazatu eta errefuxiatuei dagokienez, urte bakoitzeko datuak baino ez ditugu, eta soilik bat-bateko hondamendiek (hala nola, urakanek, uholde-euriek eta uholdeek) eragindakoenak. Nazioarteko erakundeek ez dituzte unean-unean klima-eraginen ondorioz desplazatuta edo migratuta dagoen biztanleriari buruzko datuak. **Gauza bakarra dakigu, azken urteetan, urtero 20 bat milioi desplazatu izan direla, batez beste, bat-bateko fenomenoen ondorioz** (urakanak, uholdeak...); **baina ez dakigu zenbatek jarraitzen duten desplazatuta, ez eta zenbatek emigratzen duten ere**. Ingurumen-fenomenoen ondorioz urtean izaten diren desplazatuen kopurua asko aldatzen da urtetik bestera, baina, azken hamarkadan, 24 bat milioiko batezbestekoa izan da urteko. Desplazamendu horietatik, 4 milioi kausa geofisikoek eragin dituzte (lurrikarek, tsunamiek edo sumendi-erupzioek), eta beste 20 milioi klimatikotzat har ditzakegu. **Are eta datu gutxiago daude sorkuntza moteleko fenomeno klimatikoek** (hala nola lehorteek, laboreen narriadurek edo basamortutzeek) **eragindako desplazatuei edo migratzaileei buruz**.

Eta egin al daiteke klimaren ondoriozko barne-desplazamenduen hurbilketarik?

Klimaren ondoriozko barne-desplazamenduei dagokienez, hurbilketa-ari-keta bat egin dezakegu. **Nazio Batuen Populazioaren Dibisioak** emandako datuen arabera, **ondoriozta daiteke mundu osoko gutxienez 60 milioi pertsona mugitu direla landa-eremuetatik hirietara. Une honetan, eskualde tropikaletan ari da gertatzen batez ere mugikortasun-mota hori**, klima-aldaketak gehien zigortu dituen zonaldeetan eta landa-eremuko habitatak geroz eta gehiago desagertuz doazen eskualdeetan. Azken urteetan, munduko migratzaile-kopurua 5,6 milioi hazi da, batez beste, urtero; hazkunde hori kontuan hartuta, beraz, barne-mugikortasuna migrazioa baino hamar aldiz handiagoa dela ikus dezakegu. Horrenbestez, **ondoriozta dezakegu klima-aldaketak, oraingoz, desplazatu gehiago eragin dituela migratzaileak baino.**

Eta sortzen ari den migrazioei dagokienez, Sahelgo eta Afrikako Adarreko kasuak ikusi ditugu; kasu horietan, inguruko herrialdeek hartu dituzte migratzaileak. Laburbilduz: barne-desplazatu gehiago migratzaileak baino, eta distantzia laburreko migrazio gehiago distantzia luzekoa baino. Beraz, **klimak eragindako mugikortasunak gatazkek eta indarkeriak eragindakoaren antzeko ezau-garriak izan ditu orain artean.** Zerbaitengatik dira biak nahitaezko migrazioak, ezinbesteko arrazoiek eragindakoak, bizia salbatzeko bilatutakoak.

Noiz bihurtuko dira distantzia luzekoak migrazio klimatiko?

Ikusi dugun bezala, egun, hiri tropikalak, edo hobeto esanda **hiri tropikaletako aldiriak, dira klimak eragindako barne-desplazamenduen eta migrazioen helmuga nagusiak**. Baina oso bizkor hazten ari diren hiri horietan ere klima-arazo larriak izango dituzte, jendea ihes egiten ari den landa-eremuetan egun dituzten arazoak bezain larriak.

Klima-aldaketak egungo bidetik jarraitzen badu, hau da, gobernuek beren klima-politikak errotik aldatu ezean, **2030etik aurrera beroak asko zailduko du bizitza mega hiri tropikal askotan**, eta egoera askoz okerragoa izango da 2050era gerturatzen garen heinean. Edateko uraren urritasuna ere arazo larria izango da. **Munduko Bankuak** 2016an ohartarazi zuen nekazaritza- eta energia-sektoreek ura dela-eta izango duten lehiaren ondorioz balitekeela 2050. urterako hiri tropikalek galduta izatea 2015ean zuten ur-bolumenaren bi heren. Horrez gain, kostaldeko hirietan (hiri tropikal handietako gehienak dira kostaldekoak), itsas mailak gora egingo du. Azken ikerketek ohartarazi dutenez, izotza geroz eta bizkorrago ari da urtzen, eta itsas mailaren gorakada duela urte batzuk uste zena baino handiagoa izango da; hala, egindako kalkuluen arabera, 300 milioi pertsona inguru itsasoko urak hondora ditzakeen hiri-lautadetan bizi daiteke 2050ean. Horrez gain, subsidentzia aipatu behar da, hiri handiek beren pisuagatik eta akuiferoak drainatzeagatik jasaten duten hondoratzea.

Egoera kezagarria, benetan... Zer aukera dugu?

Orain arte, klima-eraginen ondorioz etxea utzi duen jende gehiena ez da bere herrialdetik atera, hirietara lekualdatu dira; baina **jendeak hiri horietatik atera behar duenean, gaur egun baino zailtasun gehiago izango dituzte beren herrialdean bertan bizitza berri bat hasteko leku egoki bat aurkitzeko**. Ezin-go dute ihes egindako landa-eremuetara itzuli, klima-aldaketaren ondorioz ezingo baita haietan bizi. Kasu askotan, ez da erraza izango inguruko herrialdeetan finkatzeko leku bat aurkitzea ere, antzeko klima-eraginak jasaten ariko baitira. Eta orduan, distantzia luzeko emigrazioa izango da aukera nagusia.

Noiz iritsiko da hori, eta zer-nolako munta izango du? Migrazio klimatikoek 2050. urte inguruan izango duten garrantziaren zenbait hurbilpen badaude; baina, finean, **governuek ezartzen dituzten klima-politiken mende egongo dira**, hasi berri dugun hamarkadan egiten diren politiken mende, batez ere.

Zer kategoria eman behar zaie migrazio klimatikoari?

Funtsezko aldea dago lurrikara batek, edo beste edozein hondamendi geofisikok, eragin dezakeen migrazioaren eta etengabeko lehorteeak, edota beste edozein hondamendi klimatikok, eragin dezaketenaren artean; izan ere, bigarren migrazio-mota hori guk geuk eragin dugu, gizakiok. **Komunitate zientifikoak jada ez du inolako zalantzarik: klima-aldaketa antropogenoa da, industrializazioaren sorreratik isuri diren berotegi-efektuko gasek eragin dute.** Ez dago beste kausa naturalik, gutxi bada ere, aldaketa hori eragiten laguntzen duenik; izan ere, bi mendez baino gehiagoz erre ditugun erregai fosilengatik izan ez balitz, hozte-fase arin batean egongo ginateke, eguzki-erradiazioa ahalagoa izan baita azken hamarkadetan.

Dagoeneko 1 °C berotu da mundua, nekazaritza eta giza zibilizazioak garatu diren azken 11.000 urteetan izan den igoerarik handiena, eta horrek ondorioak izan ditu: zikloi bortitzagoak, lehorte gogor eta luzeagoak, eurite bizi eta ustekabekoagoak, itsas mailaren igoerak, eta ozeanoen azidotzea, korallak eta itsasoko bizitza ugaria hiltzea eragiten ari dena. Zientzialariek lehenbizi esan ziguten ez genuela inola ere onartu behar temperatura 2 °C baino gehiago berotzea, eta, geroago, zer prozesu gertatzen ari ziren ikusita, adierazi zuten ezin genuela onartu temperatura 1,5 °C igotzea. 2015eko Parisko Akordioan konpromiso hori dago jasota.

Baina egungo gobernuek edo botereek egiaz ez dituzte aholku horiek sustatzen... Finean, erabaki politiko baten aurrean gaude...

Nolanahi ere, **Nazio Batuen** klimari buruzko azken goi-bileretan (COP deritzen urteroko bilkurak) aurkeztu dituzten txosten zientifiko guztiek adierazten dute gobernuek hartutako konpromisoek berotze global aski handiago batera garamatzatela. **Petteri Taalas** Munduko Meteorologia Erakundearen idazkari nagusiak hau esan zuen 2018ko COP24an (eta berriro esan zuen 2019ko COP25ean): *«egungo joerak jarraitzen badu, baliteke mende amaierarako 3 eta 5 °C artean berotzea, eta ezagutzen ditugun erregai fosilen erreserba guztiak ustiatzen baditugu, nabarmen handiagoa izango da tenperatura-igoera»*. Bestalde, **Munduko Bankuko** presidenteak, hainbat zientzia-zentrori eskatutako hiru azterketa jaso ondoren, hau adierazi zuen 4 °C-ko igoerari dagokionez: *«suntsipena eta giza sufrimendua eragingo dituzten muturreko fenomeno klimatikoen eta meteorologikoen mundu baten ikuskizun dramatikoa izango dugu»*.

Mendearen amaieran 4 °C beroagoa den mundu bat ez izateko, **IPCCk** adierazi du neurriak hartu behar direla *«berehalakoak eta sekula ikusi gabeko eskala batean»* (2018: 17), **baina neurri horiek oso urrun daude gobernuek orain arte erakutsi duten borondatek**. Erregai fosilen erauzketan eta kontsumoan eskatuko lituzketen murrizketak, eta nekazaritzan, garraioan, abiazioan, eraikinen eraikuntzan eta abarretan gauzatu beharko liratekeen ekintzak, oraingoz ez daude gobernuen agendan, ez behintzat gobernu gehienen agendan. Horrenbestez, **klima-aldaketak baditu arduradunak. Ez da fenomeno natural bat, funtsean oinarri politikoa duen fenomeno bat da, eta horrek dakar klima-aldaketaren biktimak biktima politikoak izatea. François Gemenne** Liègeko Unibertsitateko Ikerkuntza Zientifikoko Funtseko (CEDEM) eta Parisko Sciences Po unibertsitateko ikerlariak adierazi bezala, *«klimak eragindako migrazioa gehiago da auzi politiko bat ingurumen-auzi bat baino, eta klima-aldaketa pertsona zaurgarrienen aurkako jazarpen-modu bat da»*.

Beraz, arazo politiko bat izanik, migratzaile klimatikoentzako nazioarteko babes-sistema bat izan behar da? Hitz egin al daiteke errefuxiatu politikoei buruz?

Klima-aldaketaren biktimak politikoak badira, haien bizitzaren aurkako mehatxa haiek babesteko neurriak hartzen ez dituzten gobernuen ardura badira, saihestezina da **biktimentzako nazioarteko babes-sistema** baten beharra planteatzea. Dena den, biktimak izendatzeko erabili behar dugun modua gai eztabaidagarria da. Zehazki, errefuxiatu izendatu behar ditugun ala ez erabakitzeak sortzen du eztabaida, **errefuxiatu klimatiko** adierazpena erabili behar dugun ala ez.

ACNUR, OIM eta nazioarteko beste erakunde batzuek ez dute adierazpen hori erabiltzen, eta gutxienez bi arrazoi ematen dituzte horretarako. Lehenengoa, **Errefuxiatuei buruzko 1951ko Genevako Konbentzioan** ez dagoela inolako aukerarik migratzaile klimatikoak sartzeko. Hau da, Genevako Konbentzioan, arrazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde bateko kide izateagatik edo iritzi politiko bat edukitzeagatik jazarritako pertsonak aipatzen dira, eta, beraz, oso argi dago zer babesten den; horregatik, migratzaile klimatikoak ez dira multzo horretan sartzen. Eta bigarren arrazoa da **errefuxiatu** terminoa ez Konbentzioan ez asilo-legeetan aipatzen ez diren pertsonak izendatzeko erabiliz asilo-eskubideari balioa gutxitu diezaiokegula. Bestela ere oso zaila da estatuek Genevako Konbentzioa betetzea eta gatazketatik ihes egin duten edo jazarri dituzten pertsonak hartzea (era batera edo bestera, ia gobernu bakar batek ere ez du betetzen), eta, beraz, talde horietan sartzen ez diren pertsonak errefuxiatutzat aurkezten baditugu, are gehiago erraztuko dugu estatuek gaia arinkeriaz hartzea.

Eta ezin badira errefuxiatutzat hartu, zer babes-mota eman daiteke?

Egia da, bai, estatuak behartu egin behar direla beren ekoizpen-ereduaren biktima diren pertsoneri nazioarteko babes ematera. Migratzaile klimatikoak soilik migratzailetzat hartzen badira, estatuak ez dute inolako obligaziorik pertsona horiei herrialdera sartzen uzteko eta harrera egiteko, ez baitago etorkinak onartzera behartzen duen nazioarteko itunik. Aitzitik, **errefuxiatutzat definituz, migratzaile klimatiko horien babes-eskubidea aldarrikatzen dugu**, eta, era berean, herrialde kutsatzaileen erantzukizuna **eta klimaren arloan erakusten duten gelditasun kriminalaren biktimak babesteko duten betebeharra adierazten ditugu**.

Era batera edo bestera, errefuxiatu izena jarrita ala ez, **beharrezkoa da migratzaile klimatikoentzako nazioarteko babes-sistema bat garatzea**. Munduko egungo testuinguru politikoan, ez dirudi egokia denik 1951ko Genevako Konbentzioaren erreforma bat proposatzea errefuxiatuen arloan, egoera okertu bailiteke, hobetu beharrean; horregatik, zuzenagoa dirudi klima-eraginetatik ihes egiten duten pertsonak babesteko protokolen bat proposatzea Klima Aldaketari buruzko **Nazio Batuen Konbentzio Esparruan**. Hainbat egile eta erakunde proposamenak egiten ari dira norabide horretan. Eztabaida irekita dago, eta ezinbestekoa da indarrez bultzatzea, biktimak babesik gabe gera ez daitezen.

